

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2010eko azaroaren 26a. VIII. urtea. 2.130. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Iruran haur, gazte eta helduak Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean kalera irten ziren. E. MAIZ

Lila kolorez jantzi dira eskualdeak

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean Tolosaldean eta Leitzaldean hamaika ekimen antolatu dituzte; herritarrek aldarria kalean zabaldu dute

Oihana Oskariz psikologo eta terapeutak adimen emozionalaren inguruko tailerra eskainiko du gaur 17:00etan, Villabonako udaletxeko balioantzeko gelan **3**

Txuletaren Festa antolatu dute abenduaren 4tik 8ra Tolosako Zerkausian

Julian, Nicolas, Burruntzi eta Orue erretegiak sukaldariak prestatuko dituzte idi txuletak; txartelak 45 euroan jarri dituzte salgai Tolosaldea Tour-en bulegoan **2**

Tolosako Azokak + KM O ekimenak sukaldari japoniarra edukiko du bihar

Gernikako Iketxu jatetxeko Yukatak Tenpura bat prestatuko du japoniar erara Zerkausian, lehenik erosketak egingo ditu azokan **6**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra

Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Idi txuletaren omenez

Abenduaren 4tik 8ra Txuletaren Festa hartuko du Zerkausiak; ekitaldi ugari izango dira egun horietan

Iñigo Terradillos Tolosa

Gastronomia da ziurrenik Euskal Herriak duen ezaugarriarik nabarmenena, eta gure mugetatik at sona handia dute jakiek bai eta horiek prestatzeko erak. Gauza bera gertatzen dela gure eskualdean esan daiteke, hainbat jaki zuzenean lotzen baitira Tolosaldearekin. Horietako bat da idi txuleta. Baserri lanerako besterik ez zen erabiltzen idia, Tolosan estreinakoz txuleta bat parrilla gainean jarri zuten arte. Horregatik da Tolosa, Nerea Letamendia Azoketako zinegotziak dioenaren arabera, «erretegi eta erretzaile onenen sorlekua», eta hori dela eta, produktu hau omentze alde-ara, bosgarren urtez Txuletaren Festa egingo dute.

Abenduaren 4tik 8ra erretegi erraldoi bilakatuko da Zerkausia, eta bertan Julian, Nicolas, Burrunzi eta Orue erretegiakok sukaldariek txuleta prestatuko dituzte. Hauekin batera, lagungarri gisa urdaiazpikoa, zainzuriak, kukuluak, piperrak edota gazta eta Tolosako ohiko gozoak dastatu ahaliko dira. Jaki hauek guztiak zerbitzatzeaz Divinus Cate-

ring arduratuko da, iaz bezala, TAKEkoen laguntza izango dute.

Aurrerantzean bertako okela Zerkausiaz gain, herriko beste bost jatetxe eta sagardotegitara ere zabalduko da Txuletaren Festa. Hain zuzen ere, Astelena, Beti Alai, Botarri eta Bide Bide jatetxeetan eta Usabal sagardotegian Zerkausiko menu bera eskainiko dute prezio berean, hau da, 45 euroan.

Bestalde, Jokin Bildarratzek azaldu duenez, «garrantzitsua eta beharrezkoa da» lehen sektorea bultzatzea. Horregatik, akordioa sinatu du udalak Alejandro Goya harategiarekin, «bertan hezitako idien txuleta izateko aurrerantzean Txuletaren Festan».

Egitaraua festaren inguruan Txuletaren Festarekin batera ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da herrian. Batetik, Lur kolektiboak antolatuta artisautza azoka izango da San Frantzisko pasealekuan, abenduaren 4an eta 5ean. Goi mailako zesta punta jaialdia ere izango da, abenduaren 6an, Beotibar pilotalekuan, eta abenduaren 7an euskal labeldun txekor errea probatzeko aukera izango da Trianguloan.

Bestetik, Beotibar pilotalekuak 75 urte betetzen dituela eta, abenduaren 3tik 8ra pilota partida ugari izango dira ikusgai, hainbat modalitatetan: eskuz, zesta-puntu, erremontea eta paleta.

↓ Txuletaren Festa

DATUAK

- **Otorduak.** Abenduaren 4an eta 7an afariak eta 5, 6 eta 8an bazkariak.
- **Menua.** Goya okelak, Alejandro Goya eta Dastatzenen txuleta, Villamayor del Rioko urdaiazpikoa, Tuterako kukuluak, Pedro Luis kontserbategiko Lo-

dosako zainzuriak, Antton Arrozaren Lodosako piperrak, Tolosako Martin-Txiki eta Berastegiko Larteko Idiazabal gaztak eta Casa Eceizako zigarroak eta teila eta Gorrotxategiren xaxuak.

- **Txartelak.** 45 euroan. Tolosaldea Tour bulegoan, 943 69 74 13 zenbakira deituta edo tour@tolosaldea.net helbidera idatzita.



Txuletaren Festako parte-hartzaile eta antolatzaileek atzo egin zuten ekimenaren aurkezpena, Zerkausian. I.T.

Irudia › Tolosa



AURTEN ERE, GASTRONOMIKA AZOKAN

Donostiako Gastronomika Azokan bere lekua izan du aurtan ere Tolosa Gourmet-ek. Hala, eskualdeko informazioa banatzeaz gain, produktu gastronomikoen berri eman diete gerturatu direnei. Larte eta Martin txikiko Idiazabal gazta, 19-90 tabernako pintxoak, Tolosako Babarrun elkarte-

koen eskutik babarrunak, Alejandro Goya eta Nikolas etxearen eskutik txuleta eta Eceiza eta Gorrotxategiren eskutik gozoak dastatu ahal izan dira. Udaletik balantze «oso baikorra» egin dute, Tolosa Gourmet-en mahaia azokako entzute-tsuen izan baita». HITZA

www.euskalherriko **PLAZA**.com

% 10eko deskontua

AGUA

ABANDUAREN 31 ARTU

PAGOIA

ABANDUAREN 31 ARTU

Artisau Jogurtak

Mahala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Indarkeria sexistaren aurka, kolore lilaz jantzitako eguna

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna izan zen atzokoa; honen baitan, hainbat ekitaldi egin ziren

Esti Ezeiza Gizartea

1999ko abenduaren 17an, Nazio batuen Batzar Orokorrak erabaki zuen azaroaren 25a emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako eguna deklaratzeko. Honekin batera, gonbita luzatu zien gobernuei, nazioarteko erakundeei eta gobernuen kanpoko erakundeei, egun horretan antolatzeko, iritzi publikoa emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatearen inguruan sentsibilizatzeko jarduerak.

Gonbit horrek eta orduan hartutako konpromisoak gero eta isla gehiago du inguruko udalengan. Baina hau nahikoa al da? Hamaika urte igaro dira ordutik, baina gauzek ez dute hobera egin eta eraso sexistak egunero albiste dira. Aurten Euskal Herrian sei hildako utzi ditu indarkeria sexistak, tartean tolosar batena, Elena Calena.

Atzoko egunari begira, administrazioek eta gizarte eragileek hainbat kanpaina jartzen dituzte martxan. Hala, aurtengoan, Tolosako udalak, iaz bezala, gazteen gan arreata berezia jarri, nerabe-

ak sentsibilizatzeko ekitaldiak burutzen ari da. Bestalde, atzo, hainbat tokitan ikusi zitekeen puntu arrosa zintzilikatua. Baita Topic-en ere. Nazioarteko Txotxongilo jaialdia hastear den honetan, Marionak ere bat egin zuen ekimenarekin.

Tolosa eta Iruran elkarretaratzeak

Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Tolosan. Bertan, autodefentsa feminista aldarrikatu zuten, baita, «honek bide lagun dituen indarra, babesa, eutoestima eta konfiantza». Beraien esanetan, «autodefentsa feminista hein batean, bizi dugun errealitatearen aurrean hartzen dugun jarrrera da». Bestalde, indarkeriaren aurkako prebentzioa eta erantzuna «ezinbestekotzat» jotzen dituzte.

Iruran, etxeko txikienak, hainbat heldurekin batera kalera ateratu ziren Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako egunarekin eta salaketekin bat egiteko. Hauek indarkeria simbolikoa nabarmendu nahi izan zuten, eta iazko lelo berdina errepikatu «Beldurrik gabe».

Irurako udal ordezkarien esanetan «indarkeria simbolikoa oso zabaldua dago eta eskotan naturalizat hartzen da». Horren baitan daude, «emakume izatea ordu eta toki jakin batzuetan arrisku-



Villabonan eta Leitzan, hitzaldiak izan ziren; lehendabizikoan udaletxean, eta bigarrenaren, institutuan. HITZA

tsua da; babes beharra sentitzea; lotsatua edo errudun sentitzea sexu eraso bat jasan izanagatik; beldur izatea eta hauskor sentitzea...»

Prebentzioa lantzea da udalaren iritziak, ildo garrantzitsuenetako bat, horregatik, prest agertu ziren, herriko emakumeekin batera, behar diren baliabideak bultzatzeko eta gazteengan portaera sexistak prebenitzeko, nahiz eraso matxisten aurrean joera aktiboa izan dezaten sustatzeko.

Leitzan hitzaldia eta tailerra

Leitzako Bilgune Feministako kide den Saioa Iraolak hitzaldia eskaini zuen atzo goizean Amazabal institutuan. Ikasle nahiz irakasleek hartu zuten parte bertan. Gero elkarretaratzea egin zuten, eta iluntzean, Hezkidetza tailerra, Aurrera elkartean.

Villabona, 'Tratu onen eguna'

AGIPASE-ko (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte) kideek hitzaldia eskaini zuten atzo Villabonako udaletxean. *Tratu onen*

eguna jarri zioten izenburu honi. Hasteko, Ana Perezen ikus-entzunezkoa ikusi zuten. Bertan heziketari ematen zion garrantzia psikologoak, «azken batean, haurrek ez dira hiltzaile edo bortxatzaile jaiotzen, hauek egin egiten dira» zioen. Ondoren, borobil bat eginez eserita, hizketan aritu ziren.

Ekimenekin jarraituz, Hutsunea betez-ek antolatuta gaur adimen emozionalaren inguruko tailerra izango da udaletxeko balioaitzeko gelan 17:00etan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko gutxiatara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Tolosaldea eta Leitzaldea »

Euskal presoiei elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak gaur egingo dira

Azken ostiral guztietan bezala, eskualdeko herri ezberdinetan, ohiko leku eta orduetan elkartuko dira

Erredakzioa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan, ohi bezala, gaur elkarretaratzeak egingo dituzte. Hileko azken ostirala izanik, ohiko ordu eta lekuetan elkartuko dira, euskal presoiei elkartasuna adierazteko. Herriar guztiei dei egiten diete elkarretaratze hauetan parte hartzeko. Azken gertaeren artean, «Arantza Zulueta abokatua gose greban dagoela eta euskal gazteriarekin kontrako atxiloketak salatu nahi dituzte».

↓ Elkarretaratzeak

GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30etan.
- **Amezketak.** 19:30etan.
- **Anoeta.** 19:30etan.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30etan.
- **Ikaztegieta.** 20:30etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30etan.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Txaraman.
- **Leitza.** 20:00etan Lopeneko biribilgunean.

Bihar Nafarroaren Eguneko ospakizunetan murgilduko dira

Udalak eta Kultur Taldeak antolatuta, erakusketa, emanaldia, hitzaldia eta kantaldia izango dira

Erredakzioa Leitza

Abenduaren 3a Euskal Herrian Euskararen Eguna izateaz gain, lehenegotik ezagutzen da Nafarroaren Eguna bezala. Xabierko Frantziskoren eguna delako, nafar guztiek egun hori jai izaten dute.

Leitzako Udalak eta Leitzako Kultur Taldeak, Nafarroaren eguna ospatzeko ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte. Bihartik aurrera eta abenduaren 5a bitarte, udaletxeko batzar aretoan era-



Ekitaldiak bukatzeko, Jeiki abesbatzaren kantaldia izango da. HITZA

kusketa egongo da. Bertan, Nafarroa eta Euskal Estatuaren inguruko, panelak, materiala,... egongo dira.

Azaroaren 29an 19:30ean, *Nafarroako Zatiketaren hasiera 1200 Gipuzkoaren jatorria* DVD-aren emanaldia eta solasaldia izango da Beñi Agirrearen eskutik.

Abenduaren 1ean, 19:30ean Osakar Arantzabalek, *Euskal Herriaren Independentziaren bideragarritasuna* hitzaldia emango du.

Abenduaren 3an, ostirala, udaletxeko batzar aretoan Nafarroaren Eguna ospatuko dute eta horretarako Jeiki abesbatzaren eskutik kantaldia izango da.

Txindokitik Everestarako bidea egingo dute Mendi Astearekin

Lau egunetan, mendi eta herrialde ezberdinak ikusi eta mendiaren inguruan ikasteko aukera izango da

Erredakzioa Amezketak

Astehenean Amezketako Mendi Asteari hasiera emango diote. Osteguna bitarte, emanaldi ezberdinak ikusteko aukera izango da. Ekitaldiak, inauguratu berri duten eraikin berriak izango dira.

Mendi Astearen antolatzailea Buruntzuzin Mendi Elkarteak da. Lau egunetarako emanaldi ezberdinak aukeratu dituzte. Astehenean, hilaren 29an, *Txindokitik Andeetara* emanaldiarekin emango diote hasiera. 20:00etan izango da eta hizlaria Luis Sagastume izango da.

Asteartean 20:00etan, *K2 Pakistan* emanaldia izango da. Kasu honetan, Alberto Zerain izango da hizlaria.

Abenduaren 1ean, *Alaskatik Ushuaiara 22.000 kilometroak bizikletan* ikusi eta entzuteko auke-

ra paregabea izango da Joanes Gibelalde tolosarraren eskutik. Emanaldi hau ere 20:00etan hasiko da.

Abenduaren 2an, ostegunean, umeen txanda ere izango da. Beraien emanaldia 17:30ean hasiko da. Kasu honetan, *La Odisea de Maud Foutenoy* filma ikusteko aukera izango dute herriko txikiak.

Eta aurtengo Mendi Asteari bukaera emateko 20:00etan, *Everesteko trekina, Nepal* emanaldia eskainiko dute. Mañu eta Iñaki izango dira hizlariak.

→ Laburrak

Abel Barriolak bihar Titin III.aren aurka jokatu du

LEITZA » Irujoren aurka galdu ostean, bihar izango du finalera sartzeko azken aukera. Leitzarri zaila jarri bazaio ere, aukera guztiak ez ditu galdu. Hala ere, bihar Iruñeko Labriten jokatu du partidako emaitzak ez du argituko finalera izango den ala ez. Igandean, Irujo eta Gonzalezen arteko partidaren gertatzen denaren zain egon beharko du leitzarrek.

Tolosa kantari bihar 12:00etan dultzaineroekin

TOLOSA » Hileko azken larunbat guztietan bezala, Tolosa Kantarikoak kalera aterako dira. Ton-tokaletik 12:00etan abiatuko dira eta oraingoan, Jose Manuel Agirre eta konpainia dultzaineroen laguntza izango dute.

'Marmudake' eta 'An Education' filmak Gurean

VILLABONA » Bihar, Antzerkizale eguna dela eta, Gurea Zinema ez da filmarik eskainiko. Baina igandean eta astelehenean ohi bezala izango da. Igandean, 16:30ean *Marmudake* filma ikusteko aukera izango da. Eta 19:30ean, *An Education* eskainiko dute. Astehenean beriz, 21:30ean, *An Education* filma izango da.

Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeko bilera

TOLOSA » Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeko bilera irekia hilaren 30ean izango da. Corpus Christi parrokiako lokalean izango da 20:00etan.

Irudia » Villabona



DINOSAUROEN ARTEAN

Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak Oiarzongo Luberri museora joan ziren. Bertan, dinosauroen inguruko zenbait gauza ikusi eta ikasi zituzten: fosilak, hezurak, maketak... «Gauza asko ikustez gain, izugarri ikasi eta primeran igaro genuen» azaldu dute ikastolatik. HITZA

Irudia » Belauntza



JUBILATUEN EGUNA OSPATZEN

Jubilatu eguna ospatu berri dute Belauntzan. Eguna mezarekin hasi zuten. Jarraian toka txapelketa izan zen eta ondoren 37 jubilatutako pentasidun mahai inguruan bildu ziren. Bazkalostean Udalak eta Kutxak emandako opariak banatu ziren. Zeberio eta Mañukorta bertsoariak eta Eusebio Etxeberria soinu-jotzaileak alaitu zuten giroa. HITZA

Herriko talde politikoek eta sindikatuen ordezkariak Gernikako Akordioa sinatuko dute

Kimu Berriak, Amezketak Elkarlanean, ezker abertzalea, EHNE, ELA eta LAB dira sinatzaileak

Imanol Garcia Amezketak

Amezketako talde politikoek eta sindikatuak ordezkariak Gernikako Akordioa sinatuko dute bihar, Ekitaldia 12:00etan izango da, Herri Zentroan, eta bertan parte hartuko dute Kimu Berriak taldeak, Amezketak Elkarlanean taldeak, ezker abertzaleak, EHNE sindikatuko ordezkariak eta Aralar Papelerako ELAko eta LABeko ordezkariak. Amezketak aitzindaria izango da Gernikako Akordioaren herri mailako sinatzaileak egiten.

Alkatetzak duen Kimu Berriak taldeko kidea den Satur Zabalak dioenez, «akordio honek esaten duenarekin oso ados gaude. Giza eskubideen alde egin dugu beti osoko bilkuretan, bai alde batekoak eta bai besteak. Gure iritziz, aurrerapauso handia izango zen ETAK su-eten iraunkor bat aldarrikatu balu, eta pentsatzen dut aurrerapausoak eman litezkeela. Alderdi guztietatik ez da jarrera berdina ikusten, baina guretzat oso garrantzitsua da eta hemen agertzen diren puntuak ere bai». Bestalde, Zabalak espero du «hurrengo hauteskundeetan denok aukera berdinak izatea berriro aurkezteko».

Amezketak Elkarlanean taldeko kidea den Joxe Antonio Artolak esan duenez, «akordioa irakurriz gero, bakea nahi bada gauzak ez daude garbiago egotetik. Hori si-

natzea bidezkoa iruditzen zait eta bakea nahi badugu eta pauso hori ez badugu ematen, ez da izango behin ere». Amezketaz gain beste herri batzuetan sinatzea egingo dela espero du Artolak.

Amets Zabala ezker abertzaleko kideak azaldu duenez, «Gernikako Akordioaren helburuetan jartzen duen bezala, aurrenekoa

Amezketak aitzindaria izango da herri mailan Gernikako Akordioaren sinatzaileak egiten

da eragile guztiak berdintasunean egotea. Gero horrekin elkarriketa eta negoziazio fase bat lortu ahal izateko. Hori nola nazio mailan sinatu den, gure helburua da ahalik eta eragile gehienena iristea. Eta gure kasuan, Amezke-

tan ahalik eta gehiena zabaltzea». Zabalak azaldu duenez, «erraz iritsi gara akordioa sinatzeko adostasunerara».

«Bake bidera eramateko aukera»

Gernikako Akordioak azaltzen duenez, «Euskal Herria gatazka politikoa eta indarkeria bake bidera eta aterabide demokratikoe-tara eramateko aukera baten aurrean aurkitzen da». Horretarako «bermatutako indarkeriarik gabeko egoera eta normalizazio politikorako hastapena» izan behar dela dio testuak. Egoera hori hainbat edukietan oinarritu behar dela zehazten du. Besteak beste, «ETAK nazioarteko komunitateak egiaztatze moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea, jarduerak armatua behin betiko uzteko boron-

datearen erakusle gisa». Horrez gain, «eskubide zibil eta politikoz guztien aitortza, proiektu politikoz guztien jarduerak eta garapena onartuz, kontuan hartuta giza eskubide guztien aitortpena eta salbuespenik gabeko babesa direla eskubide horiexen oinarria». Ildo horretan, akordioaren sinatzaileek, Alderdi Politikoen Legea indargabetzea exijitzen dute.

Bake eta normalizazio politikoa nahikoak lortuak egongo diren testuinguruan, elkarriketarako eta negoziazio politikorako guneak zabaltzea «ezinbestekoa izango dela» dio akordioak, «gatazkaren zioak eta ondorioak osotasunean aztertze».

Elkarriketa eta negoziazio politikoa ekarriko lukeen prozesu hori Mitchell Printzipioak deitutakoetan azalduko konpromisoek zuzendu behar dutela zehazten du.

Intxur Auzo Elkartearen egoitza inauguratuko dute

Apaizetxe berrituan dago elkarteak; inaugurazio ekitaldia igandean egingo dute eta mezarekin hasiko da

I. Garcia Aldaba

Aldabako Intxur Auzo Elkarteak egoitza berria inauguratuko du igandean. Frontoiari itsatsita dagoen apaizetxea berritu dute eta bertan elkarte gastronomikoa eta erabilera anitzeko gela egin dituzte, besteak beste.

Inaugurazio ekitaldia mezarekin hasiko dute, 12:30ean. Ondoren, eraikin berritua bedeinkatuko dute. Aurrekoa ere dantzatuko dute eta ondoren egingo dute zinta mozketak. Auzokideez gain, bertan izango dira Tolosako Udaleko ordezkariak ere. Ekitaldia amaitezko mokadutxoak hartuko dute.

Elkartearen inaugurazioa ere aprobetxatuko dute omenaldiak egiteko. Alde batetik, orain 50 urte inguru Aldaban apaiz zegoen Jose Iradi omenduko dute eta, bestetik, haur eskola zegoenean bertako andereñoa izan zen Mirari Ezkurdia. 1958an luizi handi bat izan zen eta Aldabako eliza eta apaizetxea mugitu zituen. Jose Iradik bultzatuta, berrikuntzak egin ziren elizan eta apaizetxearen eta frontoia eraiki zuten. Eskola ere martxan jarri zuten.

Egunero eraikinean, behe solairuan, komun publikoak, elkarte



Apaizetxean dago kokatuta elkartearen egoitza. I. GARCIA

gastronomikoa eta honen komunak daude. Lehen solairuan, balioitzeko gela, komuna, elkarte bilera-gela eta apaizaren bulegoa dago. Balioitzeko gela liburutegia ere izango da eta bi ordenagailu egongo dira bertan. Eraikina Gotzaitegiarena da eta 15 urtetako kontzesioa eman dio udalari.

Auzoko bilgune

Intxur Auzo Elkartearen zortzi laguneko talde eragileak biltzen da, auzoaren beharrak aztertze eta bideratzeko. Elkarteko lehendakaria den Joxe Ramon Emanaldek dioenez, «konturatu gara azkeneko trenaren azkeneko ba-

goian gabiltzala eta ez bagara esnatzen auzoa bukatu egingo dela». Horregatik hasi dira biltzen eta «ematen du jendea gogorekin dagoela», dio Emanaldek.

Elkartea auzoaren bilgune izango da. Lehen jatetxea izaten zen biltzeko lekua, baina itxi zenetik ez da izan orain arte elkartzeko lekurik. «Biltzeko leku bat ez izateak jendea mugiarazi du», dio Emanaldek. «Aldabak base-riari oso sakabanatuta ditu eta orain elkarteak auzotarrak elkar-ta auzoaren beharrei erantzuna emateko balioko du». Hain justu, aurki Kultur Asteburua ospatuko dute elkarteok, abenduaren 10ean eta 11n.



Balioitzeko gelan liburutegiarentzako lekua dago. I. GARCIA



Beha solairuan elkarte gastronomikoa dago. I. GARCIA

Gernikako Iketxu jatetxeko Yukata sukaldariak Tenpura japoniar erara prestatuko du bihar Zerkausian, 11:30etik aurrera, Tolosako azokan erositako produktu freskoekin.

Japoniar ukituz dator KMO ekimena

Asier Imaz Ekonomia

Yutakaren ama, Nagako Ikeguchi, duela zazpi urte Japoniatik Euskal Herrira etorri zen, turista gisa. Urdaibai ikustean ordea, maitemindurik gelditu zen eta nekazalturismo etxe batekin hasi zen ametsetan. Yutaka semea konbentzitu ondoren, lehen urratsa eman zuten, Gernikan taberna bat erositik.

Bost urte ondoren, Ikegutxi jatetxeko sukaldaria eta arduradua

na da Yutaka. Nagakok familieren baratza gobernatzen du, eta astelehenero Gernikako azokan jartzen du bere postutxoa.

Yutakaren esanetan, horrelako azoka gutxi egoten dira Japonian, «jendeak gehienbat supermerkatuetara jotzen baitu».

Tenpura japoniar erara

Tolosako Azokak + KMO ekimenak hitzordu berria dauka bihar, Zerkausian. Oraingo honetan, sukaldaria, Yutaka bera izango da.

Lehenik, goizean goiz, azokatik

itzuli bat emango du, bertako produktu freskoak erosteko. Ondoren, hauekin eta jadanik prestatzen ari den beste hainbat elikagaiekin, Tenpura bat egingo du japoniar erara. Yutakarekin batera, bihar, Tolosa Gourmeteko sukaldari bat egingo da.

Suak 11:30ean piztuko dituzte. Barazkiak, mariskoa, sojaz eginko salda... eta beste hamaika osagaiek Zerkausian japoniar kolorea eta usaina zabalduko dute. Ondoren, jendearen artean banatuko dute Tenpura.



KMO ekimenaren barruan, Felix Belaunzarán egon zen uztailean. A. IMAZ

Tolosako udalak eskaini dion aukerarekin «oso gustura» dago Yutaka. Bidaia gainera, Topic ezagutzeko aprobetxatuko omen du japoniarrak, bere herriko txotxongiloak ikusteko. Ez baita ahaztu behar, bihar bertan hasi-

ko dela Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia Tolosan.

Azkenik, Ikegutxi jatetxeko sukaldariak, eskualdeko herritar guztiak gonbidatu nahi izan ditu azokara eta bertan prestatuko duen Tenpura dastatzera.

Irudia › Hezkuntza



GUSTURA INGELES BARNETEGIAN

Pasa den astean Samaniego Ikastetxeko 6. mailako ikasleak Eusko Jaurlaritzak antolatutako Hizkuntzan Murgiltzeko Egonaldian izan ziren. Orioko barnetegitik «oso gustura» itzuli dira bai ikasleak bai eta irakasleak ere. «Oso baliagarria» izan dela adierazi dute, «ingelese praktikatzeko eta hizkuntza honekiko motibazioa areagotzeko».

«Ikasleen arteko harremanak sendotzeko» ere garrantzitsua izan da esperientzia. HITZA

Irudia › Kultura



LITERATURAZ ASETZEKO AUKERA

Durangoko Liburu eta Disko Azokak laster irekiko ditu ateak, eta milaka herritar hurbilduko dira euren musika edota literatura gosea asetzera. Gurean ere bada horretarako aukera egunotan, izan ere, Euskadiko Liburu Azokan Batzordeak antolatuta, hainbat postu jarri dituzte liburu eta diskoekin, San Frantzisko pasealekuan. Igan-dera bitarte izango da bertaratzeko aukera. REBEKA CALVO

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEN ERREDU BERRIA



JOSÉ LUIS ELOSUA
Gipuzkoako Adminen Pertsonen Kontseiluko lehendakariordea

“Gizarte Zerbitzuen gaineko lege berriaren bidez, adineko pertsonak bere ingurunean jarraitzea lortu nahi dugu, teknikoki posible den heinean, eta bere ingurutik atara beharrik ez izatea, horrek egoera animikoa eta sentimentala txartzea besterik ez baitakar”.

“Ezetz etxeko laguntza handitzea, etxebizitzak erabiltzaileen beharretara egokitzea, traba arkitektonikoak kentzea, belaunaldien artean elkartasuna izatea eta laguntza sozio-sanitarioa edukitzea izango dira, besteak beste, adineko pertsonen beren familietan jarri dezaten lagunduko duten elementuak”.

Eusko Foruaren
Departamentuak & Politika Sozialak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentuak Foruak & Politika Sozialak

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Arzakien arabera 15.000 arte iragarkilaburrak soilik argitaratu dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zerbitzua

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Bidegoian. Etxe biferri-kerria salgai bidatzen. Oso egoera onetan, orain dela 5 urtekoa. 3 logela, sala ederra beinisiarekin, sukalkia, 2 bainugelara eta garajea ditu. 100 metro kanaratuko lotate-

giaritu. Sarritako prest dago. Haremanefarako telefonoa: 656-74 84 75.

Lanetan ari direnak

LANERDIARIK

PERTSONAK ZAINDEZ

Anoeta. Zuzendibidea ikusten duen 20 urteko neska anoetarra nahiz eta arabatzeak umekak

zaintzako prest egoera nintzateke. Esperientzia duakut arlo hometan, beldur baino gehiagotan zaindu baititut haurrek; monitorea, entrenadore eta zaintzale moduan. Inura eta anotan lanerango balitu hobe. Kontakua jartzeko: 646-455-425. Orduz

Anoeta. Anoetan bizi den 45 urteko emakume bat naiz, eta prest nago arabatzetan umekak zaintzateke. Esperientzia badeakut, gainera; gozortan haur bat zaintzen dut. Haremanetan jartzeko: 626-7148 07. Aratz

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Bospere, 7 (banku komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Buzi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Salbide
SALBIDE
Higiezin zerbitzuz
Bukala kalea 6 • 20800 Zarautz
Telef: 943-01 07 00 / Mug: 665-71 8596
www.inmosalbide.com

Aia. Erakuntza berria, 3 logela, 2 bainugela eta 127m²ko terraza. 46.388.000 pezetan.

Aizarnazabal. 89m²ko BERRUTUAKO etxea, 3 logela, 2 bainugela, trasteleku inguru eta gara. Oso etxe ederra. 36.000.000 pezetan.

Aizarnazabal. ALKERA CP4A. Ebebitza irakur berria, 2 logela, 30.000.000 pezetan.

Getaria. Herrieta kalea, 3 logela eta 2 bainugela etxebizitza, trastelekuarekin. Egoera onetan. Prezio onak: 47.500.000 pezetan.

Zarautz. Aduenporta. Guztiz BERRUTUAKO etxea, 3 logela, 2 bainugela eta 2 terraza. Oso polita, 70.000.000 pezetan.

Zarautz. Ixasmerdi. 3 logela eta 2 bainugela etxebizitza. Altua eta egoera onetan. 51.000.000 pezetan.

Zarautz. Veta Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguakitea. 49.500.000 pezetan.

Zestoa. Arros behe. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezetan.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezetan.

Etxebila
Higiezinak

9 4 3 - 4 - 4 6 1 6 6

ALDIBATEKO
GROS Apartamentu berria, Logela, sukalkia, bainugela, ERRO ELGOIBAR Barren eta, 3 solairu, 10.000m²ko lantzerria, 1.000€

INTXARRIBONDO 3 logela, sukalkia, egongela, bainugela, ERRO URIBETA 2 logela, sukalkia, egongela, bainugela, ERRO AMARA, ANTIGUO Osoa berriki puztu, 3 eta 1 logela, 700€

SALMENTAN
EGIA Kamengo ama, Egongela, 2 logela, sukalkia, bainugela, Barren, 41.500.000 pe

ERDIALDEA Urtegia, Logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 46.500.000 pe

AMARA Foratas, Logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 45.800.000 pe

AMARA Aduen porta, 3 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 49.500.000 pe

AMARA Azkena terrazekin, Ingea, 3 logela, sukalkia, egongela, bainugela, 54.000.000 pe

AMARA Ixasmerdi, 3 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 51.700.000 pe

AMARA OSINAGA (20m²ko duplexa, 50m²ko terraza, Garajea, Oso polita)

GROS Apartamentu oso polita, Logela, egongela, sukalkia, bainugela, 26.785.000 pe

INTXARRIBONDO 2 logela, sukalkia, bainugela, Bida polita, Barren, 27.500.000 pe

ANTIGUO 2 logela, egongela, sukalkia, bainugela, Barren, Barren, 27.000.000 pe

MARTUTENE 2 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 26.980.000 pe

BERBERIA 2 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, Barren, 26.500.000 pe

BERBERIA 2 logela, sukalkia, egongela, barneko, bainugela, Barren, 32.300.000 pe

ALTEA 2 logela, egongela, sukalkia, bainugela, Trasteleku inguru, 24.990.000 pe

ALTEA 108m², 4 logela, sukalkia, egongela, 2 bainugela, 20m²ko terraza, 46.500.000 pe

MARTUTENE 2 logela, egongela, sukalkia, bainugela, Barren, Barren, 26.980.000 pe

ASTIGARRAGA Oso polita, 3 logela, sukalkia, egongela, bainugela, 27.000.000 pe

PASAJE DONIBANEA 2 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 26.200.000 pe

PASAJE ANTO Aduen porta, Logela, sukalkia, egongela, bainugela, 23.800.000 pe

ERDIALDEAN Erdialdean, 2 logela, sukalkia, egongela, bainugela, Barren, 27.980.000 pe

www.etxebila.net
Paseo 7º etxea, 4 - DONIBANEA

Leku hau zure iragarkiaren zain dago



ETXEBIZITZA GIDA

www.grupoeibar.com
943 316611

ERAKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZAK

ANOETA. Loiztopa

1. FASEA SALDAI
2. FASEA SALDAI
Terraza eta trasteleku duen etxebizitza.

3 LOGELA 826.000 EUROKIN GORA
2 LOGELAKO 649.000 €
2 LOGELA, TERRAZA ETA TRASTELEKURAKIN 183.000 €
Barneko eta polikrologelaren onetan. Tren gutxi eta N-104 gerta.

BERGARA. Loretoako

1, 2, 3 eta 4 logela
47.200 eurotik gora.

KANPORD ALDEAN EMATEAN DUTIN ETA TERRAZA DUTEN ETXEBIZITZAK, KALITATE MENDIA BIKARIA.
2 logela 180.000 eurotik gora. 3 logela 395-400 eurotik gora.
Terraza handia duen etxebizitza eta barneko duen duplexa.

DONOSTIA. Prim 32

Donostiaren erdialdean, barneko eta sukero bakarrekos.

ERAKOIN BEREZAREN BERRITZE OSOA.
1, 2 eta 3 logela, 455.000 eurotik gora.
Azalera luzearekin eta arinak, zure etxebizitza berdinagotzen zaitu dugu.

ZALDIBA. Ibaurren Azpi

2. fasearen berehala merkaturatzea.

1. fase, ibarriko etxebizitza;
3 logela terraza eta trastelekuarekin (2. solairu) 275.200 € (jabetasun);
Terraza handia 3 logelako etxea, trasteleku eta garajekin 247.800 € (jabetasun);
3 logelako terraza handiko duplexa, trasteleku eta garajekin 297.400 €.

ELGOIBAR. Urrutiar

2. fasearen berehala merkaturatzea.

1. fase, garajekin etxebizitza;
2 logelako etxebizitza (5. solairu) 221.000 € (jabetasun);
3 logelako etxebizitza (5. solairu) 292.500 € (jabetasun);
3 logelako etxe duplexa, barneko terraza 291.000 € (jabetasun);
Buzi inguruko hobeak, garaje eta terraza duen duplexa 279.500 eurotik gora.

IRUN. Canal de Santiago

3 logela, 80 m² + 11m²ko terraza, 3. solairua, 370.000 €.

Kukapen hobetsia. Irunen erdialdean, Santiagoko konstanten parkein, oinakoetara eta inguruko dirin pasatu inguratuak, leku irekia eta eguzkitasun... eta kalitate merrieta bikaina.
2, 3 eta 4 logelako etxebizitza.

ORIO. Polik Oro

1 eta 2 logela
203.000 eurotik gora.

2 logela 1. solairuan, 255.500 €.
2 logela 3. solairuan 261.500 €.
Hegazkina berriz sukalkiak erabat harriztuak, domoak...

ORIO. Erribera Muntza

3 logela garaje eta trastelekuarekin
206.000 eurotik gora.

Basoan eta ibaraldean berriz, ibarri eta polikrologelaren onetan.
Zeritoki, portak eta hondartzak gerta.
Sukalkia eguzkituak, horma-eremuak, zurgin maza kargako objektuak, barneko zurginak, abarretan, domoak...

HILABETEKO ESKEINTZA...
...AZARO OSOAN ZEHAR

DEBA, ALAMEDAREN PAREAN, HONDARTZAREN ONDOAN

2 LOGELAKO ETXEBIZITZA, 3. SOLAIRUAN
330.000 € GARAJEA BARNE

BUKATU DIREN ETXEBIZITZAK

DEBA. Ostolaza Etxe
2.B - Logela 1 - 240.405 €
3.C - 2 logela - 330.000 €

ELGOIBAR. Santa Clara.
1.C - 2 logela - 240.404 €
1.D - 2 logela - 192.000 €
B Atika - 2 logela - 276.485 €

EBAR. Erdialdean
18 etxebizitza lein 270.400 eurotik gora.
4 etxebizitza Torbio (Eibarren) 308.000 eurotik gora.
8 etxebizitza Beletarriren 173.095 eurotik gora.
6 etxebizitza Galatzen 285.500 eurotik gora.

ZUMARRAGA. Ibaurren.
Atiko duplexa 80m² - 331.754 €.

INDUSTRIALAK

Industrialguneen alokairua eta salmenta
Bergara, Elgoibar eta Egetan



7°
2°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	7°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Zihara Oreja Zubeltzu (Alegia).

Bihar 2 urte. Muxu haundi bat familia eta lehengusuen partetik.



Urte askoan!

Bihar Ikerrek 7 urte, eta abenduaren 5ean Julenek 9. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Ekaín Lanzeta Ondarribal. Gaur 2 urte. Zorionak aitona-amonen eta familia guztiaren partetik.



Urte askoan Eneko!

Dagoeneko urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Farmaziak

GAUR, OSTIRALA

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro z auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.2.

BIHAR, LARUNBATA

- **Ibarra.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.2.

ETZI, IGANDEA

- **Tolosa.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.2.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



saridunak

① Otordua

Eluska Jatetxean bi pertsonentzako otordua

- **Martin Amundarain (Anoeta)**

Euskal-Herria kalea, 12 • IBARRA
Tel.: 943 671374



HITZA jarriko da irabazlearekin harremanetan

② Sarrerak

Tolosan ospatuko den **Elkartasun Eguneko** kontzerturako sarrera pare

- **Esteban Begiristain (Tolosa)**

Azaroak 27 • Larunbata
22:00etan • Tolosako Ferialekuan



Sarrerak leihatilan bertan

③ Sarrerak

Saskibaloi partidarako sarrera pare

- **Bixente Zubeldia (Baliarrain)**

Azaroak 28 • 18:00etan
Donostiako Iunben



LAGUN ARO GBC
Power Electronics Valencia

Sarrerak eskuratzeko
Tolosako HITZAren bulegotik pasa

④ Sarrerak

Alurr Dantza taldearen **Oinazek** ikuskizunaren estreinaldirako 2 sarrera pare

- **Karmen Iraeta (Tolosa)**
- **Arantza Karrera (Amezketza)**

Abenduak 10 • Ostirala
22:00etan • Tolosako Leidorren



Sarrerak leihatilan bertan